




GEM GLOBAL CONFERENCE 2025

ENTREPRENEURSHIP
AND FUTURE IN BILBAO

Taupada ekintzailea, mundua eraldatzen duen motorra

Bilbo, ekintzailetzaren munduko epizentroa 2025ean EKINTZAILETZARI BURUZKO GEM GLOBAL BILTZARRA

EEB-OVEk (Euskal Ekintzailetzaren Behatokia) eta GEM Spainek antolatua, Bilboko Udalarekin, Bizkaiko Foru Aldundiarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin batera, SPRI eta ENISaren bidez.

prentsa-kita

Hedabide eta kazetarientzako informazioa

Dokumentu honen asmoa da informazio emateko gida erabilgarria izatea zuretzat eta zure hedabidearentzat, ekintzailetza globalari buruzko 2025eko Global Entrepreneurship Monitor (GEM) biltzarraren ingurukoa, eta ekitaldiari buruzko informazio orokorra aurkituko duzu (egunak, tokia, gaia).



EEB | OVE

Euskal Ekintzailetzaren Behatokia
Observatorio Vasco del Emprendimiento

Laburpen exekutiboa

Bilbo ekintzailtzari buruzko Global Entrepreneurship Monitor (GEM) biltzarraren egoitza izango da 2025eko otsail-lean; GEM munduko erreferentziazko ekitaldia da ekintzailtzaren ikerketa eta analisiaren arloan.

Otsailaren 17tik 19ra, Bilbok nazioarteko adituak, akademikoak eta ekintzailtzaren ekosistemako liderrak hartuko ditu ekitaldian, zeinaren helburua den GEM Global 2025 txosteneko azken aurkikuntzak aurkeztea eta funtsezko gaiei ekitea, hala nola emakumeen ekintzailtzari, enpresa jasangarritasunari eta ekintzailtzako ekosistemen dinamikei.

Topaketak 50 herrialdetako 300 espezialista baino gehiago izango ditu; hala, Bilbo, Bizkaia eta Euskadi nazioarteko erreferente gisa finkatuta daude berrikuntzan eta ekintzailtzean.

Ekitaldiaren datu gakoak

- GEM ekintzailtzari buruzko datuen iturri global handiena da, 120 herrialdetan 25 urte baino gehiagoko azterlana egin baitu.
- Bilbo-Bizkaia ekitaldiaren egoitza gisa hautatu izanak agerian jartzen du berrikuntzan, talentua erakartzen eta atzerriko inbertsioan liderra den hiri gisa finkatuta dagoela.
- Biltzarrak nazioarteko ikusgarritasuna eta garapen ekonomikoko aukera berriak ekarriko dizkio Euskadiri.

Txosten honen edukia

Agiri honek biltzarrari buruzko informazio zehatza ematen du, datak, egoitzak, gai nagusiak eta hedabideentzako sarbide eskusiboa barne. Horretaz gain, mundu-mailako eta Euskadiko ekosistema ekintzaileari buruzko datu garrantzitsuak biltzen ditu, baita elkarriketarako harremanak eta akreditazioak ere.

Bilbo elkargune gako bihurtu da ekintzailtza globalari buruz eztabaidatu eta hausnartzeko.



Zer da GEM?

Global Entrepreneurship Monitor (GEM) jarduera ekin-tzailearen munduko behatokirik handiena da. 1999an Babson College-k eta London Business School-ek sortu zutenetik, GEMek ekintzailetzari buruzko datuak bildu eta analisiak egin ditu 120 herrialde baino gehiagotan.

Zergatik da hain garrantzitsua?

- **Neurri globala:** Urtean 150.000 elkarrizketa baino gehiago ekintzailetzako jarduerak, jarrerak eta asmoak neurtzeko.
- **Eragin zuzena:** GEMek politika publikoak, enpresa-estrategiak eta programa akademikoak diseinatzeko datu gakoak ematen ditu.
- **Aintzatespena Euskadin:** 2004tik Euskadik modu aktiboan parte hartzen du GEMen, Euskal Ekintzailetzaren Behatokia-Observatorio Vasco de Emprendimiento behatokiari esker (EEB-OVE).

GEMen zifra gakoak

- 25 urteko historia.
- Presentzia 120 herrialde baino gehiagotan.
- 150.000 elkarrizketa baino gehiago eginak urtean.

GEMen eragina politika publikoetan

GEMen datuek eragin nabarmena izan dute gobernuen eta nazioarteko erakundeen erabakietan. Haren eraginaren adibide argia da Eusko Jaurlaritzaren Ekintzailetzaren Erakundearteko Planaren eragina ebaluatzeko adierazle gakoan % 70 Euskadiko Global Entrepreneurship Monitorren (GEM) txosten betearazleak emandako datuetan dagoela oinarrituta.

Zergatik Bilbon, Bizkaian eta Euskadin?

Nazioarteko aintzatespena

- Atzerriko inbertsiorako Europako 10 hiri hoberenen artean, nazioarteko ranking-en arabera.
- Hiri eredu hiri-eraldaketarako eta berrikuntzarako.

Ekosistema ekintzaile liderra


- Euskadi buru da ekintzailtzarako baldintzen estatuko ranking-ean, eta Europar Batasuneko batezbestekoa gainditzen du.
- Erreferentia unibertsitate, enpresa eta administrazio publikoen elkarlanean.

Bikaintasunerako azpiegitura

BAT Dorrea Ekintzailtzaren Nazioarteko Zentroa, Euskadiko Unibertsitatearen (UPV/EHU) Bizkaia Aretoa, Deustuko Unibertsitatearen IIBZ eta Guggenheim Museoa ekitaldiaren jardura nagusien egoitzak izango dira.

Proiektzio globala

Bilbo, Bizkaian, egoitza izateko aukeratu izanak berrikuntza eta ekintzailtzarako Euskadiko nodo estrategiko gisa duen estatua finkatzen du.



Biltzarrean jorratuko diren gai gakoak


1



Munduko GEM 2025 txostenaren aurkezpena

Ekintzailetzako jarrera globalei buruzko azken datuak ezagutaraziko dira, 50 herrialde baino gehiagotan jasoa.


2



Bilbon Emakume Ekintzaileari buruzko Txostena aurkeztea

Enpresa-eremuan emakumeentzako aukera eta erronken analisia, genero-arrakala ixteko gomendioekin.

3



Jasangarritasuna eta ekintzailetza arduratsua

Lehenengo aldiz, Bilbo hirian Jasangarritasunari eta Ekintzailetzari buruzko lehenengo Munduko Txostena aurkeztuko da. Dokumentu aitzindari horrek aztertzen du nola ekintzaileak lideratzen ari diren negozio etiko eta jasangarrietarako eredueterako trantsizioa, lorpen handia ekarri garapen jasangarriaren konpromiso globalari.

4




Ekosistema Ekintzaileen Winter School-a

Ikertzaile, ikasle eta ekosistema ekintzaileetan adituentzako ikasi, partekatu eta networking-a egiteko plataforma. Ekintzailetzaren esparruan nazioarteko akademiko ospetsuek parte hartuko dute ekitaldian.

Datu interesgarriak

- **GEMen eragin globala:** Datuak 25 urteetan zehar, urtean 150.000 elkarrizketa, 120 herrialde parte-hartzaile.
- **Eskura dauden bozeramaileak:**
 - _ María Saiz, EEB-OVEko presidentea.
 - _ Ana Fernández Laviada, GEM Spaineiko presidentea.
 - _ Iñaki Peña, EEB-OVEko ikertzailea.
- **Euskadi eta bere ekosistema ekintzailea:**
 - _ Euskadik EBren batezbesteko balioespena gainditzen du testuinguru/ekosistema ekintzailean.
 - _ Euskadi jarduera ekintzaileko banaketa parekideko ranking-aren buru da, kontuan izanda genero-arrakala handiak daudela ekintzailetza berritzailean.
 - _ Euskadi ekintzailetza seniorraren (55-64 urte) proportziorik handiena duen lehenengo herrialde/eskualdea da.
- **50 herrialdek baino gehiagok dute ordezkaritza biltzarrean.**



Agenda eta egoitza nagusiak



Datak

2025eko otsailaren
17-18-19a



Toki gakoak

1. BAT Dorreko Ekintzailetzaren Nazioarteko Zentroa:

Ongietorri instituzionala. [Otsailak 17](#)

2. Bizkaia Aretoa, UPV/EHUko paraninfoa:

Biltzar nagusiak. [Programa:](#)

<https://gemconferencebilbao.org/agenda/>

3. Deustuko Unibertsitateko liburutegia, IIBZ:

Winter School. [17, 18 eta 19an.](#)

4. Guggenheim Museoa:

Gala-afaria. [18an.](#)

5. Programari eta egoitzei buruzko informazioa:

<https://gemconferencebilbao.org/agenda/>

Ekitaldiaren informazio garrantzitsurako sarbide eskusiboa

Komunikazio-arloak emandako estekaren bidez, ekitaldiarekin lotutako funtsezko informazioa eskuratu ahal izango duzu. Esteka honek honako dokumentu eta baliabide hauek kontsultatzeko aukera emango dizu:

- **Informazio-oharrak:** prentsa-jakinazpenak, prentsa-oharrak eta berri azpimagarriak.
- **Material grafikoa eta datu gakoak:** GEM txostenaren grafikoak eta estatistika nagusiak eta horren tokiko eraginari buruzko datuak.
- **Estatistika azpimagarriak:** GEM txostenari buruzko informazio xehea eta horren tokiko eraginaren analisisa.
- **Harremana bozeramaileekin:** elkarrizketak egiteko eskuragarri dauden ordezkari gakoak zerrenda, haien harremanetarako datuekin batera.



Harremanetarako

KOMUNIKAZIORAKO ARDURADUNA:

Esther Torres

Email: comunicacion@gemconferencebilbao.org

Informazio osagarria

Ekitaldiaren webgune ofiziala:

www.gemconferencebilbao.org

Aurreko GEM txostenak:

www.eeb-ove.eus


INFORMAZIO GEHIAGO:

Euskal Ekintzailetzaren Behatokia:

www.eeb-ove.eus

GEM Global-en webgune ofiziala:

www.gemconsortium.org



GEM GLOBAL CONFERENCE 2025

ENTREPRENEURSHIP
AND FUTURE IN BILBAO

Taupada ekintzailea, mundua eraldatzen duen motorra



EEB | OVE

Euskal Ekintzailetzaren Behatokia
Observatorio Vasco del Emprendimiento



RED GEM
ESPAÑA

OBSERVATORIO DEL EMPRENDIMIENTO

Cartier
WOMEN'S
INITIATIVE



HAUTE ÉCOLE DE GESTION
HOCHSCHULE FÜR WIRTSCHAFT
SCHOOL OF MANAGEMENT

Fribourg
Freiburg

| BertelsmannStiftung



SCHWAB FOUNDATION
FOR SOCIAL ENTREPRENEURSHIP



GOBIERNO
DE ESPAÑA

MINISTERIO
DE INDUSTRIA
Y TURISMO

enisa



GRUPO
spri

TALDEA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO



Bizkaia

foru aldundia
diputación foral



Bilbao

UDALA
AYUNTAMIENTO



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



Deusto
Universidad de Deusto
University of Deusto



Mondragon
Unibertsitatea

www.gemconferencebilbao.org